


Bizkaitarrei Bkaieraz


ZER



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

362n. zenbakia • 2010 Garagarrila eta dagonilla

Euskal jokoak



Betiko
Sendia Bizkaian



Bernart D'Echepare

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Horas: Mañana, tarde y noche

Ordaña: 140 €

Curso completo: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBK'ra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura


ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

Euskal jokoak



Jokalariak baño azkarragoa da jokoak

Jokalariak baño azkarrago ta zuurrago da jokoak. Inork ez dau onartzen jokoaren balioa gure erriraren nortasunean dagoenik.

Azkarrago ta zuurrago

Zergaitik da jokoak jokalaria baño azkarrago ta zuurrago?- Gure jokoetan, jokoak loturik dagolako apostuagaz. Emetik sortzen da euskaldunaren jitea(izakera) ez dala ikusle ikusgarria izatea, ikusle lagun artekoa baño. Erriak dirua jokatuten dau. Erriak erraldoiak bear ditu beti.

Egi argia lanari buruz

Lanetik sortu da euskal kirola. Gure aurrekoak beti ibilli ziran alkar leian.

Lanaren gogortasunak, aletin egitea saritzen dau.


Gure baserritarrak alkar leiatuz menderatu dabe goldea, nekazaritzan, artzaintzan, aizkolaritzan, ortularitzan eta abarretan, ikasten ta ikasten saiatuz.

Esaera batek dionez: "jokatuten dauan gizameak, ta betean betean aritu, bere buruaz topo egiten dau".

Olerkari baten ustetan, euskalduna, arrantzale, baserritar eta kaletar (uritar bizilagun), legez agertzen da.

Gure jokoak

Jokoarekiko griña ta apostuarekiko emozioa da-rie gure jokoei. Emendik, apostuaren arriskua. Norgeiagoka jarduten dabenetik ikusleenganaño elduten da. Arau errezak: epailleak, alderdi bietan onartuak izaten dira. Or ikusten da leiaketak, era berezi batez osatzen dirala.



Gure jokoaren garapena

Gure jokoak muga jakiñetan garatu dira, indarketa aldetik oizko arrietatik berezietara aldatuz.

Kirolak bere bidea dauka. Ortik erronka egitea.

Leiaketan ez dago azken orduan atzera egiterik. Gure joko aldietan, zailla da asmatzea non dagon jokoaren eta kirolaren arteko muga.

Ogeigarren mendean, 40 ko urte aroan, arau berezi bat onartzen da erabateko jokalarien Indar, Errez-tasun ta Trebetasunari buruz.

Atletazaleen Federakuntzen ardurapeanizaten dira kirolarien jokabideak.


Baserriaren oñarria familian tinkatuten da ."Neu", lagun arteko biurtuten da. Iru biziara dagoz: ume-jolasena, gazteena ta zarrena.

Euskal jokoak "legortarrenak ta itxastarrenak" dira.

Esaerak diñoanez: "Onenari be berotzen jako ar-nasa".

Euskal pelota

Euskal jokorik nabariena. Asko idatzi da orri bu-ruz. Asko be asko jokatu da, Asiatik Ameriketara-ño. Erriko kirol bikañena



Etropadak

Peloteari lez, ale-berezia jagoko erramu- kirolari.



Atoiaketa

Batzuen iritziz erramu-kirola atoiaketatik sortu ei zan: txalupa zaleak, urrinetik zuzentzen ebezan itxas-ontzi merkantzidunak porturako bidean, ondo ibilli zitezen.

Traiñeruak

Amaseigarren mendean, 12 arrantzalekin naiko izaten zan irabazpidea lortzeko.

13 arraunlari ta patroiaz osatuten dira traiñeruak. XIX mendearen erdialdetik ezagututen dira euren arteko leiaketak, bide-saillak eta gañerako baldintzak.

Idi probak

Abereakaz arri-arrastaka egitea, "Idi-Probak" joko dogu, idiekaz egiten dalako, naiz eta iñoz "beiekaz" be bai

bakarka edo binaka. Buru-arro egoten da baserri-tarra itxuraz, pixuz eta indarrez edertuta daukozan abereakaz.

Aberats itza "abere" itzetik dator, baserri batzuetan "etxeko jauntzat" lez ezagututen dana.

Idia, abere oso egokia da, gure artean egitura apartekoa daukan lurra lantzeko. Asko erabilli zan, arrobi lanetan arritzarrak tarrastuten, ta bai ta ardao, ta artoa garraiatzeko, edo ta txalupak ontzi-oletaraño eroateko.

IDIA ERAKUSGARRITZAT. Idia, ukulluan zaindu ostean, plazan aurkesten da, bertan edo aldaz-

goran lasterka ariñean ibilleraziz. Babakaz, saiegaz, arrautzakaz, azukreagaz ta ardo- tragu ederrakaz be, elikatzen oi da.

Zailla izaten da idiekaz uztar-biko egoki bat osotzea. Eskoiakoa ona bada, zailla ei da, ezkerraldeko egoki bat arkitzea.

Idiak ez dau burrustatzen, bai ostikoak emoten, akullukada arin bategaz be.

Probaldietan "untzea" da, neurri bidea.

Bitariko idi-probak ikusten dira: pixu konparatukoa (1100 kilo bustartuena, oñarri lez) eta pixu librekoa (850 edo 900 abere bakoitzena) edo 1000 kilotik gorakoak.

Apostua aditzeko: "Bi duro bi plaza baietz" esan oi da.

Beñola, asieran, landu bako plazetan egiten ziran probak. Geroago PROBALKUEK agertu ziran.

Aspaldin, batzarraldi bakoitzeko bi orduko leiaketa izaten zan, 3/4000 kiloko arria eroanez.

Untze gitxikoak izaten oi ziran probak. "Probarriak" egozan entrenamentuetarako.

Geien erabilten diran arritzarrak, 1800, 1900 ta 2000 ekoak izaten dira.



Itxura aldetik, erretangularrak, eliptika erakoak, trapezoidezkoak eta taleak (apal eta txit zabalak) ikusten dira

Badagoz arri batzuk “arri-baltz” izenagaz narrast-gaitzak izanaz, atsegingarri eztiranak.

Probaleku ireki ta estalduak dagoz. 22 ta 25 metroko errectangularrak.

Probalekuaren luzerako neurria “untzea” da, erdi aroko 100 oña, oraingo 28 metrokoa.

Gipuzko aldean onenbesteko plaza, zinta ta metroak onartzen dira. Plaza bakoitzak, 8 zinta daukoz.

Probalekuko galtzada arri borobillez osatzen da.

Probarako lanabesak : garrantzitsuena, abereak.

Busturria. Erabat bikain ondo burutua egon bear dau, idia ondo bustartzeko lain.. Euskal bustarriari buruz makiña bat asterketa egin da.

Eztau balio aurrealdeko akulariak erabilli daiken edozein bustarriak.

Berezkoa da abereak ondo perratuta egotea, laprazt egiñez, jauzi ta bildurra artu ez dagian.

Burtagegaz, katea arriagaz lotzenda.

Aidazaleak, urrezko agea, akulua deritxona, daroadie, puntan alanbreagaz lotutako pintxo bat ipiñita.

Aldikada baten akulluaren ordez zigorra erabilli eikean. Baña ikusi zan aberea minduago geldituten zala.

Akuillularien zenbatekoa, leiaren baldintzen araberan izaten da.

Iñoiz tongo antzekoak gertatu izan oi dira.

Arriari kakak egin eikionirristasuna kentzeko, ta pekorotz biurtuteko edari bereziak emoten ei eutsoezan abereari.

Pekorotza batzalleak sartai batean batzen dauz abereak egiñiko pekorotza. Alan da be irristatsu egiteko modu barriak agertu ziran, esmerildun txirlorak barreatuz edo ta gaubez xaboia ixuriz probalekuko zelaian.

Irugarren epaillearen esku dago, norgeiagoka baimendutea.

Gora bera andikoa da sorteoak ekarri leikena. Aurretik doanak, urrengoiari gatxa ipintea.

Arri jasoketa

“Arri jasoaldiaak”.

Euskal indarraren mitoa, kirolean gauzatuz. Antziñetan “jentillek” sekulako lekuteraño jaurtiten ei eben arria.

Batzuen iritziz euskaldun gizasemearen indar andikoa, nesken zoriona artzetik sortzen ei da joko au.

Lau itxuretako arriak dagoz: zilindrozkoak, kubi-koak, erretangularrak ta esferikoak. Esbardintasuna, pixuaren araberan.

Arri gaia, granitozkoa da eta on ikusiena arri baltza.

Gorpuzkeraren araberan aukeratzen dau jasotza- lleak dagokion arri mota. Txapeldunak mota gus- tietakoakaz lan egiten dau .

Zilindrozkoa da errexena jasotzeko. Kubikozkoa da zaillena ta on- begiratu gitxikoa.

Pixu andienetako erretangularragaz lan egiten da. Zilindrozkoa, asko aldatu da.

Pixuak jasotzeko beste era batzuk: gari sakuekaz, upelakaz, burnizko ingudekaz, berun zatiekaz ta abarrekaez egiten diran jokoak. Pulsolariak lurretik burugañeraño igoten dabe berun zatia, nibeletatu- az batera.



Aizkora joko

Oso ezaguna da joko au Euskal Errian.

Aizkora langintzatik sortu dan joko da. Ariztegi, pagodi, gaztañadiak ugari dagoz.

Basoetako egurra erabilten da ontzioletan, basarriko etxegintzan, eta zenbait nekazari tresnetan.

Taldetan ibiltzen dira basoan aizkora lanean.

Leiaketan geien erabilten dan egurra, pagoa da. Gogor edo bigun izatea, ebagi dan lekutik edo itargiaren aldaketatik jatorko.

Azkarrago ebagitea baño, indartsu luzeran ekitea da kontuan artzen dana.

Ontzatan oituenak : 36(oinbetekoak) 45, 54 (kana erdikoak), 0, 72 (oinbikoak), eta 80, 108 (kana).



Bola jokoak

Ez da ezagututen noz asi ziran. Gerkar ta Erमतarrak jokatutao da. Askotariko dira, 12 ta 14 kilokoen artean. Ezagunak ziran bolatokiak errietan. Sagardotegietan, sarritan jokatuten zan.

Bizkai erakoa da “bolos al cachete” jokatuten dana.. Orretarako bedarrezko edo lurrezko leku berezi bat egoten da.

Egurrezko bola garbia erabilten da, 4, 2 kilokoa. Arteazko 6 bolo, armadoreak 1, 25 x 0, 75ko rampa baten gañean ipiñita, 6 metrora urrindurik.


Bolea ramparen gañeko boloen kontra jaurtitzen da. Lenengo zirkulu erdiraño, txorra egin barik, boloa eltzen dan araberan, puntu batekoa da ta bikoa bigarrenera eldu ezkeru.

Toka joko

Metalezko ale bat jaurtitzen da toka deritxonaren kontra.

Sega apostua

Sega-apustuak. Segalariak. Baserritarrak abereentzat daukozan belardietako lana.




Palankariak

Palanka, balanka, satai, burdin-makil jaurtiketa. Erritarren artean zaletu askoa. Gaurkoz erdi galdua. Berlinen 1936an jokatutako Olimpiada jokoetan ia onartu izandakoa.

Eskal Jaietan erriaren aurrean, palankariak itzelekoizen andia lortu eban

Euskalerriko langillek, arrobietako lanabesa lez erabilten eben palanke a .

Indartsuek euskel palankaz gañera euskel-makila, burtaga ta gezi jaurtiketan be leiatzen eben.



Andres Uriguen aulestiarrak, palanka jaurtzeko era bat erakusten digu irudi honetan.

Zazpi eratako jaurtiketak dagoz: oin librean, oin ka-teatuan, lerroan eta lerro bakoan. Eginbearrezkoak: bularrez, biraka, erdi biraka, eta ankape edo iztarpe erakoak.

Palankea, neurriz eta pixuz ezbardinak dira: 8, 10, 12, 25 librakoak. Libra, kilo erdikoa da.

Palankea jaurti baño lenago, urez edo olioiz igurtzi egiten dabe, irristagarriago egitearren eskuetan.

Laisterka apostua (Korrika)

Gorputzaldiari guztiz ondo datorkion ekeñaldia da. KROSS ATLETISMOA izenagaz dogu ezetuten.

Gizon proba

Gizasemeak, arria arrastaka eroatea edo gerri-tira deritzon jokia.

“Gizon bakarra” da geien ezagutua. Tarras eroateko, aurrekara edo atzerikara dabil jokoalea.

Gerrikoaz jazten da, esku-kakoa ta aztadun edo azta bakokatea.

Soka -tira

Soka bateri, talde bien artean eskuekaz tiraka, aurrez aurre bakoitza bere aldera ekarteko alegiñetan.

Oñarrizko pixua, talde bakoitzarentzat: 525, 560, 640, 720 ta aukerakoa.

Fisika arloan gauza bat da indarra ta almena bestea.

Beste zenbait joko

Ezagutuen artean, abere jokoan: atzain txakurrenak, asto probak, zaldi madoen-probak. Aitatzten doguz baita: Ari-Topekak, Ollar-jokoak, Antzar-jokuak, Soka-muturra ta Suzko-zezenak.

Agustin Arrian
Munetxek euskeratua



Abenduko gau otz batean



Tren-geltokian, nirea itxaroten nengoela, usain-gozodun aize-bolada a eldu jatanean burua itzuli neban. Bizkarrez egoan emakumea eta ala eta guztiz arretaz begira geratu nintzan. Berak nire ikusnaia ez susmatu ezkerro, zeaztasunez aztertu neban nik bere itxura: Oinetan bota beltz luze-luzeak, galtza estu marradun eta koloretsuen gainean, gorputzean izugarrizko gona txikia eta larruzko jaka estu beltza gerriraino eskas. Lepoan, esku bien artean estuturik, txarolezko zorro bat eroan. Ulea burugainean bilduta, ile-zergada gorri zapalak sorbaldaraino jausiak. Erreztasunez igartzen zan bere bizi-modua.

Eldu zan trena eta danok sartu ginan. Jesarleku uts batzuk ikustean presaka abiatu nintzan eurentarantz, ordu-erdiko bidaia jasangarria egiteko eta nire anka nekatuei atsedeen-aldia emoteko. I txaroteko asmoa neban, neska a non jesarriko

zan ikusteko eta bere ondoan jarri obeago ikusi naian, baina nire nekedurak irabazi eban.

Atzetik ikustean, ez nekian gazte edo eldua zan, ezina egiten jatan bere adina igartzea, bere zeregi-netik etorri etorren ala joan joan. I tzulera bazan, bearbada "txandaka" egingo eban, joateko goizegi iruditzen jatan, ondino gabeko amarrak baino ez ziran eta.

Ez neban larregi ausnartu bearrik izan, emakumea nire aurrean egoan toki uts batera oldartu zan jesarlekuan erortzen, orrela zuurki eta isilka, erreztasunaz ikuskatuko neukean.

Ezinezkoa da, bere aurpegia aurre-aurrean ikusi ala nigan eragin ziran biotz-eraginak azaltzea. Narru zuri-zuria, begiak ikatza baizen beltzak, margo ondakinaz eta inora begira, utsik agertzen ziran, baina ez, utsik ez, munduko pena osoaz

bustita egozan. Ez eban ez inor ez ezer begiratzen baina samintasunaz, etsipenaz eta nazkaz beterik igarri nintzaiozan.

Bere ezpainetan gorri-min aztarnak agertzen ziran goibel-tasunaren keinu batean. Aren nekearen nekeaz laster jakin neban lan gogor batetik etorrela eta bere adina jakitea ere oso zaila zala. Bere argaltasunak gazte-itxura emoten eutson baina ogeita amar urtetik gora, edo beera ete ebazan, ezin neban igarri.

Naiz eta jesarrita egon, makurturik joian, zama oso astuna leporatuko baleu legez. Lilura askorik ez eban baina zeozer atsegina bai, eta aitu batean gozotasunaren bat ikusten jakon begietan betule luze arekaz.

Besoak bularrean estu-estuak, gau aretako otza baztertu guraz edo berberaren beroa lotzeko. Begiak geltokietan josiak eroiazan. Noizean bein ezin-ikusizko oial astun antzeko bat jausten zan bere betazal gainen eta berak bereala berriz zabaltzen ebazan bere geralekutik aldentzeko beldurrez.

Nire barruan izugarrizko zera gertatzen egoenaz konturatu nintzan, ezina egiten jatan berarengandik begiak aldentzea.

Nik, munduko bizi-biderik antzinena inoiz ez neban begi-onez ikusten eta orain neska arentzat mota askotako aitzakiak bilatzen nebazan.

Emengoa ez zala agirian egoan. Nongoa izango ete-zan? Afrikarra inolaz ez, txinatarra ere ez, ez ego-amerikarra, ez arabiarra... I taliarra bearbada! Ule eta begi ilunak, narru zuria, ezpain mamitsuak...

Nire irudimenaren beroaz, gizon-andrekoi bat irabazitako dirua kentzeko prest asmatu neutson, edo bere atzerrian aitita-amama batzuk bere seme-alabak nekez zaintzen eta amak lortutako dirua leiatsu itxaroten.

Atsekabetuta nengoan, nire bularrean, biotzaren taupadak gero eta artegatuagoak ziran.


Zer egin neinkean emakume babes-gabekoaren aurrean? Nire besoak eskaini gura nebazan bere zama leuntzeko eta maitekiro esateko:

"Zatoz nigana maitea, neuk konponduko ditut zure arazo guztiak. Zure bizi-moduaz askatuko zaitut betirako".

Bat-batean eta nitaz ezertarako oartzen, bere lekutik zutundu eta ondorengo geralekuan jatsi zan nirengan bere usain merke gozoduna baino askoz geiago itziaz.



Leonardo Boff



Leonardo Boff brasildar teologoa eta Dalai Lama arteko solasaldi labur batetik artua.

Leonardo Askapen Teologia barrizaillekoa da.

Erlejiñoa eta errien arteko bakea buruzko maai-inguru batetan Dalai Lamarekin maaikide nintzala, zuur bezain jakin-min teologikoaz galdetu neutson erdipurdiko ingelesez:

- Santugarri zaran ori, zein deritzozu erlejiñorik onena?

“Tibetar budismoa” edo ekialdeko erlijiñoak, erantzungo eustela uste neban, kristiñatasuna baiño antziñatasun andiagokoak diralako. Dalai Lamak tartetxua artuz, irriparre egiñez eta begietara zuzen begiratuz, erantzun eustan, espero ez neban zerbait, galdera biurria bota neutsolako. Au izan zan erantzuna:

- Erlejiño onena Jainkoagana eta infinitura zuzentzen gaituena da eta zu zeu obetzen zaituena.

Ustebako erantzun jakintsu artatik ondo urten gu-reaz, galdetu neutson:

- Zerk egiten zaitu obeago? Berak erantzun:

- Biotz-bera, unkibera, xaloa, maitekor, adeitsu, erantzukizuneko eta zuzena egiten zaituena... Ori eskaintzen deutzun erlejiñoa dozu onena.

Gogobete geratu nintzan isilik, eta oraiño erantzun jakintsu eta uketuezin a, ausnartzen diardot.

Adiskide, ez dot zure erlejiñoaz eztabaidatu gure, ezta erlejiñoduna zaran ala ez.

Benetan ardura jatana zure urbilleko, familia, lan-kide, elkarte eta gizartearekiko dozun jarrera da.

Gogoratu dagigun: “Izadia gure ekintza eta pentsakizunen oiartzuna da”.

Ekintza eta Erantzuna Legea, ez dagoio soilik Fisikari. Baita giza artu emonari be bai.

Onbidean banabil, ongia urreratuko jat.

Gaizki-bidean ibilli ezkerro, gaizkia urreratuko jat.

Gutziz egia da gure arbasoek esandakoa:

- Besteentzat nai dozunaren bikoitza jasoko dozu.

Zoriontsu izatea ez da patua. Aukera baiño.

Zaindu pentsakizunak, Berba biurtuko diralako.

Zaindu Berbak, Ekintza biurtuko diralako.

Zaindu Ekintzak, Oitura izatera elduko diralako.

Zaindu Oiturak, zure Izaera moldatuko dabelako.

Zaindu Izaera, zure Patua biurtuko diralako.

Eta zure Patua, zure Bizitza izango da.

EGIAN DATZA BENETAKO ERLEJIOA.

Patxi Otamendi



Urte mugan 09

Urte mugan jatorku
EUSKERAZALEAK,
mendi-zale antzera
eginda alegiñak.
Alegiñez ein ditu
illero billerak,
baita argitu , txukun,
Aldizkari biak,
Euskal-Aste onetan
eskeñiz frutuak.

Frutu ederrak dagoz,
itzaldi landutan,
diru arloan, barriz,
agiri garbitan.
Bizi daigun euskera
buru ta berbetan,
etxean egon edo
erriko plazetan,
lurrean asi eta
segi zeruetan.

Munetxe

olerkia

Betiko Sendia Bizkaian

Gaurko sendia asko aldatuta dago. Egin daigun etxe baten aita-amak bizi dirala bost seme-alabagaz: Au nire emazteak ekarri eban, beste au neurea zan, irugarren au urikoa dogu eta beste biak geu bionak dira.

Ez da orrelakoa izan gure betiko sendia.

“ONU”k 1994n. urterako izendatu eban sendiaren laterri-arteko eguna eta gauza ona izan zan egun ori ospatzea, sendia beti dalako gizartearen oiñarria.

Komunistak aldi baten gizartetik sendia kentzea erabagi eben: Senar-emazteak beti aske dagozela eta umeak azteko zeregiña laterriak artzen ebalá. Laster damutu ziran eta barriro ipiñi bear izan eben eben sendia dagokion lekuan. Gizartea osotzeko bide obarik ez da aurkeztu sendia baiño.

Gizarte osoa dago sendiari begira: Laterriak, laterri-arteko erakundeak, eleizak, gizarteko beste erakundeak...

Gizartearen arazoak, sendiarena be ba-dira: ezike-tea, lana, jakintza, erlejiñoa... danak dauka zer-ikusia sendiagaz.

Laterri-artean be, gizadiaren etorkizuna sendiagaz lotuta dago. Gogoratu Txina´ren arazoa, erritarrak geiegi ugaritzen ziralako.

Sendiak emoten dauskuz gure nortasuna agertzeko, izena eta abizenak.

...

Sendiarena izaten da etxea. Gure Euskalerría´n, Bizkaia´n, lege bereziakaz zaintzen da etxea: Tronkalak dauka garrantzia eta onen lurak eskuratzeko lenengo eskubidea. Iñor ezin sartu leiteke etxe-barrura, ez agintariak eta ez epaikariak. Kanpotik deitu bear dabe etxeko jaunak urten dagian. Orregaitik etxeak bere izena dauka eta ortik sortuak dira gure abizenak.

Beste jokabide bat artu zan “Villa” edo urietan, baiña ez dau aurrera egin, gero eleiz-ateen arauetara sartu ziran uriak.



Euskalerritik kanpora abizenak gurasoen giroefagertzen dabe: Juarez, Jonson, Ivanovich Joan, Jon´en semea agertzeko bideak dira. Euskaldunen abizenak etxea gogoratzen dabe, ez gurasoak: Bengoetxea, Etxaburu, Kortabarria...

...

Etxean bizi diranak, “etxekoak” dira, urrengo urratsa senideak dira. Oneik, etxean bizi ez arren, odolez edo sendiz alkartuta dagoz. Baiña beti jaiote-etxeagaz zer-ikusia daukela, beste batzuk urriñeko senideak dira eta ezkontzaz lotuak diranean “izter-senideak” esaten jake.

Senideak ´tar atzizkiak alkartzen dauz eta ori eskintzen eban Arana´tar Sabin´ek, esaterakao “Goitia´tar Jon”, baiña Azkue´k naiago eban ´ko atzizkia “Goitia´ko Jon”. Etxeen izenak eta abizenak asko banatu ta nastau diralako, obeto jatorku ´tar, ´ko baiño.

Senideak ba-daukez alkartzekoeuren egunak: Ezkontzak, ... eta, betez be, Illetak. Senideai deitu egiten jake eta len onei bazkaria emoten jaken.

Gero arratsaldean illetak ospatzea etorri zan eta or amaitu zan bazkariak emoteko oitura ori, 1970n. urte-inguruan. Gure Lege Zarrak debekatu egin eben illetetan bazkaria emotea, baiña alperrik izan zan. Orain zeozer egiten da olata-egunean.

...

Sendiak bere maillak daukaz adiña kontun dala: Amandrea ta Aitajauna, Aitite ta amama dira lenengoak. Oneri “berori” gaz egiten jaken berba leku askotan. Urrengoak aita eta ama dira: Oneik “ika” berba egiten eutsen seme-alabai eta bardin nebarreben artean, orrelan gaur be, esaterako Elorrion. Umei beti egiten jake zuka. senar-emazteak alkarri zuka egiten dautsoe berba. Gaur beti zu erabiltera joten da.

Seme edo alaba bat jaioten danean, “familia euki dabe” esaten da.XVI gizaldiko esaldia da au:”Eztau etxerik, ez dauka aurrik”. Etxea sendia da.

Iru mailla artzen dira sendian: Guraso zarrak, guraso gazteak eta seme-alabak. Guzti oneik etxeok dira. Iñoz osaba edo izeko zarrak be or sartzen dira.

Sendiaren arduradun danari, “etxagun” edo “etxe-koandre” esaten jako. “Zu etxerako” eta ez “etxea zutzat”. anai-arreba ezkongekak etxean bizi leitekez ezkondu arte edo lekaide-lekaime sartu-arte. Gaur olakoak etxean bagerik kanpoan egiten dabe lan, baiña etxeok dira eta ostatua ordaindu bear dabe. Etxean lagundu be egin leikee.

...

Gauzak asko aldatzen doaz baiña etxaguntzak jarraitzen dau. Etxearen jabea etxaguna da eta zati-rik be ezin saldu legi, etxetik kanpora ezer joan ez daiten, senideen baimen bagerik. Ortik sortuak dira oraintsura arte foru-deiak (llamamientos forales) eleizan edo ateetan edo eleizbidean egitea, notarioa edo eskribaua dei-egillea dala.Tronkal-eskubidea daukenak beti dira lenengoak saltzen dana, soloa edo etxea, erosteko. Orregaitik dira deiak.

Ez dira etxaguntzako ondasunak, ezkontzara eka-riak.

Etxeguntza ez dauken etxeok euren eskubidea dauke beti eta emon egin bear jake:”teilla bat, arra bat lur eta zugatz bat”.Maia, ogea ta illobi-eskubidea be ez dira galtzen.

...

Etxea da gauza bat eta etxaldea beste bat. Etxea horma-barruan dagoana da eta etxealdeak lanabesak, abereak, soloak eta basoak dauz bereak. Gizonak lantzen dauz oneik eta etxeok lanak emaztearenak dira, beti alkar lagunduta. Korteia senarraren lan-lekua da, ortu edo baratza emazterena, baiña irabaziak beti bienak. Gaur emazteak etxetik kanpoan lan egiten dabe eta gauzak asko aldatu dira.

“Gure aurrekoak” edo il ziranak, “etxe onetatrik urten dabenak” kontuan artzen dira otoitzean eta eleizan. Eleizan sepulturak egozan atrillekaz eta atxeruakaz, argiak ipinteko. Began oial baltz bat eta gaiñean zuria. Orrek gogoratzen dauku, lenago eleizetan illobiak egozala. Sepulturea etxearena da .1452n. urtean foru zarrak sepulturea etxearen zati lez artzen eban. 1992. urtean be bai.

Ardurea etxeok andrearena da eta andra barriari emon egiten jakon ezkondu eta urrengo igandean. Eta or agertu ziran erresponsoak.

Etxe-ondoan, ortuan, antxiña illobien lekua egoan, batez be bateatu bagerik ilten ziranentzat. Teillapean, ituzuren azpian obiratzen ziran batzutan.

Etxeko erlejiño-arazoak emaztearenak dira.

OLAZARtar Martinek †



BERNART D'ECHEPARE

1493an. Naparroko Seigarren Merindadeko erri ez ezagun baten jaio zan, Donibane Garazi ondoan, bear bada (Saint-Michel-le Vieux) Eyheralarren. 1516an. S. Jean-Pie-de Porten bizi da, ta guzurrezko salakuntzaren erruz baitu dabe.

1545an. "Linguae asconum" liburu ospatsua argitaratuten dau. Ez dakigu noz ilzan. Azpimarratzekoa da napar bat, euskal idazkera eta irarketa arloan aurrena izatea, ta euskera berpiztearen bultzatzaile biurtzea.

Oihenarten L'Art Poetiqueken arauz, Echeperrek bere bertsoak kantaraztean, errimako azken silaba indarsuagoten egitea eskatuten eban.



Bernart D'Étxeparen nortasuna.

Antziñatasun aldetik, Bernart D'Étxepare benaparra da, euskal-literaturan aurrena ezagututen doguna.

Abadea izanez, Saint-Michel-le Vieuxen, Saint Jean Pie de Portetik iru kilometrora dagon erriko Erretorea izan zan.

Saint Michel, euskeraz Eyhelarre dogu, ta Ibañetik zear, Santiagorantza erromesak dabillen bidean dago kokatuta.

1.518 urte baño lenago, politikazko aro zaillean, San Juaneko Artzipreste lez jardun eban. Ariztimuñoren iritzian, Eyhalarren jaiotakoa ei zan. Alan be, ziur asko, Cize euskualdekoa zala dirudi. Orixe erakusten deusku bere jatorrizko izketak.

Ikusten danetik, erriko seme zala ta bertan bizi zala autortuten dabe.

Etxeparetarrak etxe nausi ezagunetakoak ziran, Cizeko infanzonesen artekoak, San Juan errege-uriko lege berezidunekoak, ta Bayonako lege bereziera lotutakoak. Etsai politikoen guzurrezko salakuntzaren bidez, Bearne aldera ekarri ta baitu eben, argitu bako egunetan. Paun baitu izatea onartu leike, Etxeparen egunetan Naparroko Erregea berton bizi zalako. Ezta, ordea, oraindik argitu.

1.761 an suagaitik erabat suntsituta geratu zan Pauko Agiritegia.

Ez da egiztatu baikuntzaren zergaitiak politikazkoak zitezkean ala ez, naiz eta susmatu baietz, D'Étxeparek Fernando Katolikoaren alde jokatu ei ebalako Naparroako eraso aldian.



Mikoletako Rafael jauna (1.611)

Euskal eliztia antolatuntza arloan, aurreneko ekiñalditxuaren egillea dogu.

Abadea izan zan. Bilbon 1.611 ko urtean azaroaren 19 n. jaiotakoa.

“Bizkaiera ikasteko ikasbide laburra” izena dau lan orrek. Eskuz idatzitako lan ori, Museo Britanikoan dago. Lenengo argitalpena 1.881 rtean Barzelonan egin zan “Ciencias Históricas” aldizkarirako, Salvador Sempere Miquel jaunaren ardurapean.

Bigarrena, leku eta urte berean. Irugarrena, ta azkenengoa, 1.897 an Sevillan egin zan, Dogson engladerraren aginduz.

1.653 an idatzitako liburu au, Eguzkitzaren iritziz, zazpi zatitan banatu leike:

- 1.– Izen eraskin eta izenordekoetzaz.
- 2.– Egin, izan, eta egon aditzetaz.
- 3.– Iztegi labur bat.
- 4.– Dogsonen oar batzuk.
- 5.– Alkarizketak.Zenbakerak. Astegunetako egunen izenak.
- 6.– Euskal bertso ta neurriak.
- 7.– Eun eta irurogei ta iru (163) aditz erak.

Antza danez, idazlan ori, Englandera eroan eben markataritzaren serbitzurako. Garai artan Bizkaiaren eta Englandaren artean egozan artuemonak nabarmenak ziralako.

Barneko edukia, bikaña da bizkaiko izen ugariak dakartzalako.Elizti aldetik, ordea, balio eskaxa dau, Mitxelenak bere Historia de la Literaturan diñoanez.

Agustin Arrien





Sinismen

Aingeruzko lirio,
eleizako usaiña
umeri dario;
Jainkozko errukiak
artu dau besoetan
eskarrez jario.

Eskerrik-asko Jauna,
semetzak artzen nozu
jaiotz beretatik;
bizitzako argia
bizturik itzi dozu
barnean gorderik.


Nork zainduko ete dau
adiskidetasuna
gu bion artean?
argizagi ederra,
argitu nire oiñak
illunpe baltzean.

Paulin

olerkia

Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak



IIkaste

8		6		2				
	7							
			9			2	5	
		3			8	4		
5		4	6		3	8		1
		7	2			6		
	4	8			2			
							9	
				9	1			8

Sudoku

3	2	9	7	6	5	1	4	8
6	1	5	8	3	4	7	9	2
7	4	8	1	9	2	5	8	3
1	8	7	2	4	9	6	3	5
5	9	7	6	7	3	8	2	1
2	8	3	5	1	8	4	7	9
4	3	1	9	8	6	2	5	7
9	7	2	4	5	1	3	8	6
8	5	6	3	2	7	9	1	4

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....'tar
 kalean (auzoan)..... zenbakian
 errian,errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzekodiru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

San Juan de Gastelugatxe

Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua
nere gogoaren ertzatik pasatzen.
Zure usain gozoa, lana,
amodioa, itsasoa,
nere baitan sartzen.
Atzo goizean entzun nuen
zure berbaren oihartzuna,
zure kantaren fereka,
bihotzean kilika
eta ohiartzunaren haunditasunean
murgilduz joan nintzen
jausika, hegaka.
Bart arratsean
arbasoen baratzaren ondoan
bertsotan eta dantzan
lotu zinen alai piper eta gatza
sabel emankorra.
Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua.
Olerkari
penatuaren gozo eta mina
amodio eta kanta
zure berba leun,
zure gatzaren bizia,
zure burdinaren gorria dira gaur
neretzat aterbe.
Bizkaia maite
atzo goizean ikusi zindudan
soineko xuriz jantzia
buruan orlegi, bihotzean sua,
lirain, sendo, eder.

